



OLAZTIKO BALKOI APAINDUEN LEHEN LEHIAKETA HERRI IHOTEAK 2023

Olaztiko Balkoi Apainduen lehiaketa antolatu du udalak lehenengo aldiz

OINARRIAK:

1. Lehiaketaren xedea da herri-inauteria sustatzea, eta horretarako, balkoi ederrenak sarituko dira.
 2. Inauteriarekin zerikusia duten apaingarriak erabili beharko dira.
 3. Balkoiak 2023ko otsailaren 16tik 25era arte egon beharko dute apainduta, balioztatu, kalifikatu eta haietaz gozatu ahal izateko.
 4. Izena emateko epea oinarri hauek udalaren webgunean argitaratzen direnean hasiko da, eta otsailaren 15eko 24:00etan bukatuko.
 5. Inskripzioa udaletxean edo posta elektronikoz egin daiteke (olaztikoihoteak@gmail.com). Hartan honako datu hauek jaso beharko dira: balkoiaren jabearen izen-abizenak eta balkoia edo balkoi apainduak dauden etxebizitzaren helbide osoa (kalea, zenbakia eta atea).
 6. Epaimahaia sei lagunek osatuko dute, honako entitate eta talde hauen izenean: Olaztiko Inauteriaren Elkarte, Olaztiko Udala, inauteriko parte-hartzaile bat, San Miguel Elkarte, Santa Ana Elkarte eta Maisuenea Gaztetxea.
 7. Balorazioa 2023ko otsailaren 18an egingo da, larunbatean, 12:00etan. Epaimahaikideek inskribatutako balkoi guztiak bisitatuko dituzte.
 8. Epaimahaikideek lehiaketan parte hartzen duten balkoi guztien argazkiak aterako dituzte. Argazkiak Udalaren eta Olaztiko Inauterien Elkartearen jabetzara pasatuko dira.
 9. Etxebizitza bakoitzeko sari bakarra emango da. Sari hauek banatuko dira:
 - 1. saria: 150 €
 - 2. saria: 100 €
 - 3. saria: 50 €
- Saria jasotzeko, irabazleek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak Olaztiko Udalarekin.

10. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta epaimahaiaren erabakiekin ados egotea dakar berarekin.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, parte-hartzaileek baimena ematen dute lagatako datuak gordetzeko. Fitxategia Olaztiko Udalaren erantzukizunpekoa da (helbidea: GARTZIA XIMENEZ, 1, 31809, OLAZTI (NAFARROA)). Fitxategiaren helburua da Udalaren alorretatik eta departamentuetatik egiten diren jardueren, ikastaroen, mintegien eta jardunaldien kontrola eta kudeaketa, horien sustapena barne. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako eta soilik gordeko dira eskuratu ziren helburua erdiesteko beharrezkoa edo legezkota denean. Nolanahi ere, emandako baimena bertan behera utzi ahal izango duzu. Era berean, datuetan sartu, zuzendu edo kentzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, baita tratamendua mugatu eta transferitzeko eskubidearen aurka egiteko eskubidea ere. Eskaerak Udalaren erregistro orokorrean egin beharko dira: GARTZIA XIMENEZ PLAZA, 1, 31809 OLAZTI (NAFARROA). Halaber, beharrezkotzat joz gero, erreklamazioa aurkeztu dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edota harremanetan jarri Datuak Babesteko ordezkariarekin (olazti@olazti.com).